

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEGAZPIKO UDALA

Iragarkia

Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak, joan den 2020-06-24an egin zuen ohiko bileran, hasierako onespena eman zion «Legazpiko premia edo larrialdi egoeretarako etxebizitzaren araudia»ri.

Hasiera bateko onspenaren iragarkia 2020-07-6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Jendeaurreko informazio-epea amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu araudiaren aldaketa behin betiko onspena jaso duela ulertzen da, beraz argitaratzen da.

Legazpi, 2020ko irailaren 9a.—Alkatea. (4531)

Legazpiko premia edo larrialdi egoeretarako etxebizitzaren araudia.

ZIOEN AZALPENA

Araudi honen xedea da premietarako eta larrialdietarako harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea.

Gizarte-larrialdietarako etxebizitza honen xedea da araudi honetako 2. artikuluan zehaztutako premia edo larrialdi egoerei erantzutea etxebizitza aldi baterako erabiltzeko aukera eskainita.

Etxebizitza honetara sartzeko baimenak zerbitzu publiko izaera du; eta, horrexegatik, bete egin behar du Herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautzen duen araubidea. Hortaz, aldi baterako larrialdietarako etxebizitza erabiltzen duten pertsonak ez dute Legazpiko Udalarekin alokairu-harremanik izango juridikoki. Etxebizitzaren lagapena ez da mugagabea izango inola ere.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 42. artikuluan ezartzen duenaren arabera, udalen eskumena izango da, bakoitzari dagokion udal barrutian, ondorengo funtzioak betetzea: Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuak hornitzea.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, 33.2.a) artikuluan, udal eskumeneko zerbitzuak, prestazioak eta laguntza ekonomikoak garatzen ditu, eta aditzera ematen du, oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuen artean, besteak beste, harrera-etxebizitzak egongo direla. Harrera-etxebizitzetzi dagokienez, bi motatakoak daude.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da premia edo larrialdi egoeretarako udal harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea kasu haue-
tan:

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 24-06-2020 aprobó con carácter inicial el «Reglamento regulador del piso de urgencia/emergencia social en Legazpi».

El anuncio de la aprobación inicial fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 6-07-2020.

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, el citado Reglamento se entiende aprobado definitivamente por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 9 de septiembre de 2020.—La alcaldesa. (4531)

Reglamento regulador del piso de urgencia/emergencia social en Legazpi.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El presente Reglamento tiene por objeto regular el uso y el acceso al piso de acogida de urgencia/emergencia de carácter municipal.

El piso de urgencia/emergencia tiene como objetivo dar respuesta a las situaciones de urgencia/emergencia definidas en el artículo 2 del presente Reglamento mediante una autorización de uso temporal de esta vivienda.

La autorización de acceso a esta vivienda tiene carácter de prestación de un servicio público y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Públicas, es decir, la relación de la persona(s) acogida(s) en el piso de emergencia temporal con el Ayuntamiento de Legazpi, no constituirá figura jurídica de arrendamiento. En ningún caso, la cesión del piso se realizará por tiempo indefinido.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales, establece, en su artículo 42, que será competencia de los Ayuntamientos, en el ámbito de sus respectivos términos municipales, la provisión de los Servicios Sociales de Atención Primaria del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

A su vez, el Decreto 185/2015 de 6 de octubre de Cartera de Servicios Sociales desarrolla en su artículo 33.2.a) los servicios y prestaciones o ayudas económicas de competencia municipal e indica que, dentro de los servicios sociales de atención primaria, entre otros, estarán los servicios de alojamiento/ pisos de acogida.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

Este Reglamento tiene por objeto regular el uso y acceso al piso de acogida de urgencia/emergencia de carácter municipal en los siguientes supuestos:

1. Gizarte-premia edo -larrialdi egoerei erantzuteko harre-ra-etxebizitza. Etxebizitza horietan ostatua eskaintzen zaie irau-pen laburreko egonaldia behar duten pertsoneri eta bizikidetz-a-unitateei, gizarte-premia edo larrialdi egoera batek eragindako osatu faltari aurre egin ahal izateko.

2. Tratu txar fisiko edo psikikoengatik familia-harreman egoe-ra-jasanezinei aurre egiteko harrera-etxebizitza. Etxebizitza horie-tan ostatua eskaintzen zaie egonaldi labor bat behar duten pertso-nei eta bizikidetz-a-unitateei, indarkeria matxista egoera bat gain-ditu ahal izateko, betiere babes-neurririk behar ez bada.

3. Udal Gizarte Zerbitzuek onartutako bestelako premia edo larrialdi egoera batzuk.

Egoera berezietan izan ezik, harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea bizitoki bat ematera mugatzen da eta bertan ez da inolako tutoretzarik izango, ezta harreran hartutako pertsonak zaintzeko langilerik ere.

Udaleko Gizarte Zerbitzuek etxebizitzan ostatu hartzea era-gin duen egoeraren jarraipena egingo du. Era berean, premia edo larrialdi egoeratik berreskuratzeko eta ostatu beharra sortu duen egora gaingidetzeko beharrezko esku-hartze planaren jarrai-pena ere egingo dute.

Premia edo larrialdi egoeretarako etxebizitza bera hainbat pertsona edo bizikidetz-a-unitateren arazoei irtenbidea emateko erabil daiteke aldi berean, betiere etxebizitzaren neurriek eta ekipamenduek horretarako aukera ematen badute.

Onuradunek ezin izango dute inola ere inolako eskubiderik erabili etxebizitza eskusiboki erabiltzeko, etxebizitza horretan duten antzinatasunaren arabera.

2. artikulua. Definizioak.

Araudi honen ondorioetarako, ostatu falta edo bizikidetz-a-gatazka larriko egoera kritikotzat hartuko dira inguruabar haue-tatik eratorritakoak:

1. Legazpiko Udalak harrera premia duten pertsonen bizile-kua dagoen eraikinaren berehalako aurri-egoera deklaratzeko.

2. Hondamendi, sute, uholde eta antzerako gertakizunak, bizikidetz-a-unitatearen bizitokia den eraikina erabilezin bihur-tzen dutenak.

3. Familia-harreman jasanezinak, tratu txar fisiko edo psi-kikoak daudelako.

4. Sexu esplotazio edo pertsonen salerosketa egoerak.

5. Gizarteratzeko programa batean parte hartu eta bilakae-ra ona izaten ari diren pertsonak, bizitoki bat behar badute.

6. Bestelako gizarte- edo osasun-premia egoerak, Gizarte Zerbitzuek txosten bidez hala justifikatuta badaude. Egoera hauek Alkateak berretsiko ditu nahitaez.

Edozein kasutan, esku-hartze planean ezarritako ekintzak erabat betetzearen mende egongo da beti etxebizitzan jarrai-tzea.

Kanpoan geratuko dira substantzia toxikoen, alkohola bar-ne, eraginpean egotearen zantzu argiak dituzten pertsonak, eta substantzia toxikoekiko mendekotasuna dutenak. Modu berean kanpoan geratuko dira, larritzat jo daitezkeen alterazio edo gai-xotasun psikikoak dituztenak.

1. Piso de acogida para la atención de situaciones de ur-gencia/emergencia social. En los que se ofrece alojamiento a persona(s) y/o unidades convivenciales que requieren una es-tancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de urgencia o emer-gencia social.

2. Piso de acogida para la atención de situaciones de rela-ciones convivenciales insostenibles por la existencia de malos tratos físicos y/o psíquicos. En los que se ofrece alojamiento a persona(s) y/o unidades convivenciales que requieren una es-tancia de corta duración para poder recuperarse y superar una situación de violencia sexista, siempre que no requiera de me-didas de protección.

3. Otros supuestos de urgencia/emergencia valorados fa-vorablemente por los Servicios Sociales Municipales.

Salvo circunstancias especiales, el uso y acceso al piso de acogida de urgencia/emergencia social, se limita a facilitar alo-jamiento, no ejerciéndose en este piso tutela alguna, no existi-endo en el mismo personal atendiendo a la(s) persona(s) aco-gida(s).

Desde los Servicios Sociales Municipales, se realizará un seguimiento tanto de la situación que les ha llevado a ocupar esta vivienda como del Plan de Intervención necesario para poder recuperarse y superar la situación por la que ha(n) debido ser acogida(s).

El piso de acogida de urgencia/emergencia social puede ser utilizado simultáneamente para dar solución a problemas de personas y/o unidades convivenciales distintas, siempre que las dimensiones y equipamientos del mismo lo permitan.

En ningún caso podrá esgrimirse por parte de las personas beneficiarias ningún tipo de derecho sobre la utilización exclu-siva de la vivienda en función de su antigüedad de ocupación.

Artículo 2. Definiciones.

A efectos de este Reglamento, se entenderán como situacio-nes críticas de carencia de alojamiento o por graves conflictos convivenciales las derivadas de las siguientes circunstancias:

1. Declaración de ruina inminente por parte del Ayunta-miento de Legazpi de la edificación que sirva de residencia a la persona(s) necesitada(s) de la acogida.

2. Catástrofe, incendio, inundación y fenómenos similares que inhabiliten la edificación que sirva de residencia a la unidad convivencial.

3. Relaciones convivenciales insostenibles por la existen-cia de malos tratos físicos y/o síquicos.

4. Situaciones de explotación sexual o trata de personas.

5. Personas con necesidad de alojamiento que estén par-ticipando en un programa de inserción social con una evolución positiva. En estos casos, la estancia en el alojamiento irá condi-cionada siempre al cumplimiento exhaustivo de las acciones es-tablecidas en el Plan de Intervención.

6. Otras situaciones de emergencia social debidamente justificadas mediante informe de Servicios Sociales, pasando necesariamente por ratificación de Alcaldía.

En todos los casos, la estancia en el alojamiento irá condi-cionada siempre al cumplimiento exhaustivo de las acciones es-tablecidas en el Plan de Intervención.

Quedan excluidas aquellas personas que presenten signos evidentes de estar bajo los efectos de sustancias tóxicas, in-cluido alcohol, y aquellas de las que se conozca su adicción a las mismas. También quienes sufran alteraciones o enfermeda-des psíquicas que se puedan considerar graves.

II. KAPITULUA

ONURADUNAK

3. artikulua. *Onuradunak izan daitezkeenak zehaztea: baldintza orokorrak.*

Legazpin erroldatuta dauden eta bertan bizi diren pertsona edo bizikidetzaren unitate guztiek erabili ahal izango dute premia edo larrialdi egoerarako etxebizitza. Horretarako, gutxienez, 6 hilabeteko antzinatasun jarraitua izan beharko dute erroldan, eta aurreko artikuluan zehaztutako egoeraren batean egon beharko dute.

Salbuespen gisa, etxebizitza erabili ahal izango dute:

– Herrian bizi baina erroldatuta ez dauden pertsonak, egoerak hala egitea eskatuko balu, betiere Udal Gizarte Zerbitzuak egoera aztertu eta alde badaude eta Alkateak berresten badu.

– Beste udalerrietako pertsonak ere hartu ahal izango dira, egonaldi labur bat behar badute indarkeria matxista egoera bat gainditzeko, betiere babes-neurririk behar ez badute, Udal Gizarte Zerbitzuak egoera aztertu eta alde badaude eta Alkateak berresten badu.

4. artikulua. *Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.*

4.1. Eskubideak:

Oro har, etxebizitzan hartutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak izango dituzte.

4.2. Betebeharrak.

Oro har, etxebizitzan hartutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako betebeharrak izango dituzte.

Hauek dira berariazko betebeharrak:

– Premia edo larrialdi egoerarako udal harrera-etxebizitzaren araudi honetan jasotako arauak betetzeko konpromisoaren agiria sinatzea.

– Esku-hartze planean Legazpiko Udaleko Gizarte Zerbitzu-ekin adostutako neurriak betetzea.

– Zerbitzu hau erabili behar izatera eraman duen egoera aldatzeko egoki jotako gestio administratiboak, judizialak nahiz bestelakoak egitea.

– Seme-alabak edo ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzea.

– Etxebizitza erabiltzen duten pertsonen pentsamendu-, irizki-, ideologia- eta erlijio-askatasuna errespetatzea.

– Erroldatuta dagoen udalaren helbidea ematea erreferentzia gisa, beste erakunde publiko batzuek helbideari eta egoitzari buruzko datuak eskatzen dituztenean.

– Elkarrenganako errespetuan, tolerantzian eta laguntzan oinarritutako jarrera izatea, etxebizitzan bizi diren pertsonen eta auzokideen arteko elkarbizitza errazteko. Baita bizilagunen komunitatea arautzen duten arauak betetzea.

– Etxebizitzan erabiltzaileen esku dauden ekipamenduak eta tresnak egoki eta errespetuz erabiltzea. Erabiltzaileen ardura izango da premia edo larrialdi egoerarako harrera-etxebizitzako gela eta elementu komunak txukun eta garbi mantentzea.

CAPÍTULO II

DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

Artículo 3. *Determinación de las personas beneficiarias: Requisitos generales.*

Puede ser usuaria del piso de urgencia/emergencia cualquier persona o unidad convivencial, empadronada y que tenga residencia efectiva en Legazpi, con una antigüedad mínima de 6 meses ininterrumpidos en el padrón municipal, y que se encuentre en alguna de las situaciones señaladas en el artículo anterior.

Excepcionalmente podrán acceder a este piso:

– Las personas residentes en el municipio que carezcan del requisito de empadronamiento, cuando las circunstancias así lo aconsejen, previo estudio favorable de los Servicios Sociales Municipales y ratificación por Alcaldía.

– Personas de otros municipios que requieren de una estancia de corta duración para poder recuperarse y superar una situación de violencia sexista, siempre que no requiera de medidas de protección y previo estudio favorable de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Legazpi y ratificación de Alcaldía.

Artículo 4. *Derechos y Obligaciones de las personas usuarias del servicio.*

4.1. Derechos:

Con carácter general, las personas acogidas disfrutarán de los derechos contemplados en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

4.2. Obligaciones.

Con carácter general, la(s) persona(s) acogida(s) deberán cumplir con las obligaciones contempladas en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

Con carácter específico deberán:

– Firmar el documento de compromiso de cumplimiento de las normas establecidas en este Reglamento para el uso y disfrute del piso de acogida de urgencia/emergencia social.

– Cumplir con las medidas acordadas con los Servicios Sociales de Legazpi, recogidas en el Plan de Intervención.

– Efectuar las oportunas gestiones, administrativas y/o judiciales y/o de cualquier otro orden, necesarias para modificar la situación que ha provocado el uso de este recurso municipal.

– Responder del cuidado de sus hijos e hijas o de otras personas a su cargo.

– Respetar la libertad de pensamiento, opinión, ideología y religión de las personas con las que se comparte el recurso.

– Dar como referencia la dirección del Ayuntamiento donde se encuentra empadronada, cuando los datos del domicilio y residencia sean requeridos por otras instituciones públicas.

– Mostrar una conducta basada en el respeto mutuo, la tolerancia y la colaboración, con el propósito de facilitar la convivencia entre las personas residentes y con la vecindad, obligándose también a cumplir las normas que rijan en la comunidad de vecinas/os.

– Hacer un uso adecuado y respetuoso de los objetos, equipamientos y utensilios a su disposición en la vivienda, siendo responsables del orden y la limpieza de la habitación y elementos comunes del piso de acogida de urgencia/emergencia.

– Dagokion eskailera-tartea eta ataria garbitzea, bizilagunen komunitateak adostutako egunetan.

– Premia edo larrialdi egoeretarako harrera-etxebizitzan egindako kalteengatik erantzutea.

– Legazpiko Udalak baimendu ez dituen pertsonen harrera-etxebizitza okupatzen eta erabiltzen ez lagatzea, edozein dela ere haiekin duen ahaidetasuna edo harremana.

– Atariko eta etxebizitzako giltzen kopia ez egitea, eta giltzak beste bati ez lagatzea. Egonaldia bukatutakoan, giltzak Legazpiko Udalarari entregatu behar dizkio.

– Etxebizitzan eta atarian animaliarik ez edukitzea, txakur gidariei buruzko azaroaren 17/1997 Legean jasotako baldintzetan ez bada, edo Legazpiko Udalak salbuespen gisa baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.

– Higienearen aurkako materialik edo material arriskutsurik ez gordetzea. Eta berariaz debekatuta dago armak edukitzea.

– Substantziarik ez kontsumitzea, ez legezkorik (alkohola, tabakoa), ez legez kanpokorik.

– Zerbitzuan gertatzen diren kalte, konponketa edo hobekuntza premia guztiak Udal Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea. Zentzu horretan, erabat debekatuta dago edozein konponketa egitea, alde aurreko baimenik gabe.

– Etxebizitza sartzean, premia edo larrialdi egoeretarako harrera-etxebizitzan dauden altzarien eta tresnen inbentarioa sinatzea. Egonaldia bukatutakoan inbentarioa egiaztatuko da, baita etxebizitza eta altzariak egoera onean daudela ere. Kalteren bat baldin badago edo inbentariatutako ondasunen bat falta baldin bada, erabiltzaileak hori konpontzeko edo erosteko gastuak ordaindu beharko ditu. Gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak inbentarioaren agirian bertan jasoko dira.

– Ezinbestekoa izango da gaua bertan ematea. Alde egjin behar izanez gero, Udal Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie eta haiek izango dute egindako eskaeraren gainean erabakia hartzeko ahalmena.

– Udal Gizarte zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzen uztea.

– Legazpiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek emandako jarraibide guztiak betetzea.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

5. artikulua. Sartzeko prozedura.

5.1. Eskabidea.

Etxebizitzan sartzeko eskaera Legazpiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez egin beharko da horretarako formalizatutako eskabide betez. Gizarte Zerbitzuek berehala izapidetu beharko dute eskaera, egoera larria delako eta harrera beharra justifikatzeko informazioa erantsiko dute.

Interesdunak uko egin diezaiokete eskabideari, idatziz, prozesuaren edozein unetan. Horrek espedientearen artxibatzea ekarriko du.

5.2. Izapidetzea eta balorazioa.

Eskaeraren tramitazioa eta balorazioa Legazpiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute. Teknikariek, nahitaez, txosten bat egingo dute ondorengoa zehazteko:

- Harreran hartu behar diren pertsonen identifikazio datuak.
- Eskatzailearekin bizi ohi diren gainerako pertsonen identifikazio datuak.

– Realizar la limpieza del tramo de escalera y portal los días que convenga el resto de la comunidad de vecinas/os.

– Responder de los daños causados al piso de acogida de urgencia/emergencia.

– No permitir la ocupación/uso del piso de acogida a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Legazpi, independientemente del parentesco o relación que tenga con ellas.

– No realizar copia de las llaves del portal, ni del piso de acogida de urgencia/emergencia social ni dejarlas a otra(s) persona(s). Al finalizar la estancia, deberá entregar las llaves en el Ayuntamiento de Legazpi.

– No tener animales en el portal ni piso de acogida de urgencia/emergencia social, salvo en los términos contemplados en la Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de perros guía, o en otros casos excepcionalmente autorizados por el Ayuntamiento de Legazpi.

– No almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos, prohibiéndose expresamente la tenencia de armas.

– No realizar ningún tipo de consumo de sustancias sea legal (alcohol y tabaco) o ilegal.

– Comunicar a los Servicios Sociales de Legazpi cualquier desperfecto o necesidad de arreglo o mejora en el servicio, prohibiéndose expresamente cualquier intervención en este sentido sin su autorización previa.

– Firmar un inventario de los enseres y ajuar al entrar en el piso de acogida de urgencia/emergencia social. Al finalizar la estancia, se comprobará dicho inventario, así como el buen estado del piso y el mobiliario. En caso de desperfecto o falta de algún bien inventariado, la(s) persona(s) acogida(s) estará(n) obligada(s) a cubrir los gastos de su reparación o compra. El plazo y las condiciones en que deberán abonarse estos gastos figurarán en el mismo documento del inventario.

– La pernocta será obligatoria. En caso de necesidad de asentarse, se deberá comunicar a los Servicios Sociales de Legazpi quienes tendrán la facultad de resolver la solicitud realizada.

– Permitir el acceso al personal de Servicios Sociales de Legazpi u otras personas autorizadas por éstos.

– Cumplir con todas aquellas indicaciones que se realicen desde los Servicios Sociales de Legazpi.

CAPÍTULO III

PROCEDIMIENTO

Artículo 5. Procedimiento de acceso.

5.1. Solicitud.

La solicitud de acceso deberá realizarse a través de los Servicios Sociales de Legazpi, mediante instancia formalizada a tal efecto, tramitada con la inmediatez requerida por la urgencia de la situación y adjuntando a la misma información justificativa de la necesidad de acogida.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada solicitante podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho, conllevará el archivo de la solicitud.

5.2. Tramitación y Valoración.

La tramitación y valoración de la solicitud será realizada por personal técnico de los Servicios Sociales de Legazpi, que elaborará un informe preceptivo que determinará:

- Datos de Identificación de la(s) persona(s) a alojar.
- Datos de identificación del resto de la(s) persona(s) que conviven habitualmente con la persona solicitante.

- Zein egoerak behartu dituen ostatua eskatzera, araudi honen 2. artikuluan zehaztutakoak.
- Bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa.
- Harreran hartutakoek bere gain hartzen dituzten konpromisoak.
- Balorazioa, ostatua ematea egoki den ala ez.
- Aldi horretan egin behar den esku-hartze profesionala.
- Balorazioa positiboa bada, egonaldiaren denboraren proposamena.

Espedientean sartuko dira txosten hori eta bertan adierazten diren egoerak egiaztatzeko beharrezko dokumentazio guztia. Onarpen edo ezespren ebazpen-proposamena egingo da erabilgarritasunaren arabera eta ondoren azalduko den lehentasun-hurrenkerara aplikatuta.

Premia edo larrialdi egoerarako harrera-etxebizitzara sarzeko lehentasuna erabakitzeke, honako alderdiak hartuko dira kontuan:

1. Harreran hartu behar diren artean adingabeak egotea.
2. Bizitokia izateko beharra, erasorik edo tratu txarrik ez jasateko.
3. Etxebizitza-beharra hondamendiak, aurri-adierazpenak edo kaleratzeak eragindakoa izatea.

6. artikulua. *Beste udalerrri bateko pertsonak egindako eskaera.*

Eskaera beste udal edo erakunde publiko batetik badator, harrera beharra zehaztuko duten egoerak egiaztatzeke beharrezko dokumentazioa izango du. Horrez gain, jatorrizko udal edo erakunde publikoko Gizarte Zerbitzuen txosten bat aurkeztuko du azaltzeko zergatik irizten dion egoki larrialdiko harrera Legazpin emateari eta harrerari dagokion tasa ordaintzeko konpromisoa adierazteko.

Legazpiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek jasoko dute dokumentazioa eta, hura aztertu ondoren, balorazio-txosten bat eta eskaera onartzeko edo ezesteko proposamena egingo dute.

Proposamen hori Alkatetzari helaraziko zaio, eta honek ebazpena emango du eskaera onartzeko edo ezesteko.

7. artikulua. *Ebazpena.*

Ebazpena, gehienez ere, 15 eguneko epean emango da, eskaera udaleko Herritarren Arretarako Zerbitzuan sartzen denetik kontatzen hasita.

Harreran hartu behar diren pertsonak larrialdiko harrera-etxebizitzan sartu aurretik, nahitaezkoa izango da aldeko ebazpenean agertzen den eskatzaileak, udalak edo erakunde publikoak esku hartzeko plana izenpetzea. Eskatzaileak, udalak edo erakunde publikoak dokumentu hori izenpetzen ez baldin badu, eskaerari uko egiten diola ulertuko da.

8. artikulua. *Harreraren iraupena.*

Aldeko ebazpenak harreraren iraupena jasoko du. Iraupen hori kasuaren ezaugarrien eta zerbitzuaren beharra eragin duen egoera konpontzeko aukeren arabera ezarriko da.

Oro har, iraupena 6 hilabetekoa izango da, harrera-kontrata sinatzen den egunetik aurrera. Edozelan ere, hiru hilabeteko luzapenak izan ditzake, gehienez ere 12 hilabete arte. Harrera beharra eragin duten egoera edo baldintzak iraungo balute, epe hori luza liteke hilabetez hilabete eta berrikusita.

- Circunstancias que motivan la solicitud de alojamiento establecidas en el artículo 2 del presente Reglamento.
- Situación económica de la unidad convivencial.
- Valoración sobre la conveniencia de conceder el alojamiento.
- Intervención profesional a realizar en dicho periodo.
- Compromisos que adquiere(n) la(s) persona(s) acogida(s).
- En caso de que la valoración sea positiva, propuesta de tiempo de estancia.

Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en él se señalen, formaran parte del expediente. En función de la disponibilidad y aplicando el orden de prioridad que a continuación se indica, se elevará la propuesta de resolución estimando o desestimando la solicitud de acogida.

El orden de prioridad al piso de acogida de urgencia/emergencia social se determinará en función de:

1. Que haya menores de edad entre las personas a acoger.
2. Necesidad de acogimiento para no ser agredida/o o maltratada/o.
3. Que la necesidad de vivienda este causada por catástrofe, declaración de ruina o desalojo.

Artículo 6. *Solicitud de alojamiento de persona(s) de otro municipio.*

Quando la solicitud provenga de otro municipio o institución pública vendrá acompañada de toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que determinen la necesidad de alojamiento, así como de un informe, de los Servicios Sociales del Ayuntamiento o institución pública de donde proviene, explicando las razones por las que entiende conveniente el alojamiento de urgencia en Legazpi y el compromiso de abonar la tasa por acogida correspondiente.

El personal técnico de los Servicios Sociales de Legazpi, habiendo recibido y analizado toda la documentación presentada, elaborará a su vez, un informe de valoración y propuesta de aceptación o denegación de la solicitud presentada.

La propuesta será elevada a Alcaldía que emitirá resolución estimando o desestimando la solicitud de acogida.

Artículo 7. *Resolución.*

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de 15 días desde la fecha de registro de entrada de la solicitud en el Servicio de Atención a la Ciudadanía Municipal.

Será imprescindible la firma del Plan de Intervención por parte de la persona, Ayuntamiento o Institución Pública que figura en la resolución favorable antes del ingreso en el piso de acogida/emergencia social de la(s) persona(s) acogida(s). En el supuesto de que la(s) persona(s), Ayuntamiento o Institución Pública solicitante(s) no suscribieran el mencionado documento, se entenderá que renuncian a su solicitud.

Artículo 8. *Duración del Acogimiento.*

La resolución favorable de acogimiento especificará la duración del acogimiento, la cual se fijará en función de las características del caso y las posibilidades de solucionar la situación que ha provocado la necesidad del servicio.

Con carácter general, la duración será de 6 meses considerados a partir de la fecha de la firma del contrato de acogimiento, prorrogables trimestralmente hasta un máximo de 12 meses. En caso de persistir las circunstancias o condiciones que motivaron la concesión del acogimiento a la(s) persona(s) solicitante(s), dicho plazo podrá ser prorrogado con una periodicidad y revisión mensual.

IV. KAPITULUA

ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

9. artikulua. *Zerbitzua iraungitzea.*

Arrazoi hauengatik iraungiko da zerbitzua:

- Harrererako aurreikusitako aldia amaitzea.
- Erabiltzaileak, udalak edo erakunde publikoak uko egitea.

- Ebazpenean jasotako pertsonaren heriotza.
- Harrera beharra eragin zuen beharra desagertzea.

– Harrera emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

– Harreran sartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.

– Harreraren jarraipena egiteko eskatutako agiriren bat ez aurkeztea.

– Harreran hartutako beste norbaiti eraso fisikoak edo psikologikoak egitea.

– Araudi honek harreran hartutako pertsonen ezarritako betebeharrak ez betetzea.

– Arrazoirik gabe etxebizitzatik alde egitea.

– Legazpiko Udaleko Gizarte zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzen ez uztea.

– Barne funtzionamendurako arauak ez betetzea.

– Esku hartzeko planaren arabera egin beharrekoak ez egitea.

Espedientea izapidetu ondoren eta Udal Gizarte Zerbitzuek proposatuta, zerbitzua aurreikusitako eguna baino lehenago iraungitzeko erabakia hartu ahal izango du Alkateak ebazpen bidez, Udal Gizarte Zerbitzuek interesdunari entzun ondoren.

10. artikulua. *Kaleratze administratiboa.*

Araudi honetan aurreikusitako arrazoren bat tarteko edo emandako epea bukatu delako, etxebizitza utzi behar duten pertsonen uko egiten badiote hori egiteari, utzarazpen administratiboaren bidez behartu ahal izango dira etxebizitza uztera, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 120. artikuluan eta hurrengoetan edo hura ordeztzen duen araudian aurreikusitako prozedura-izapideen arabera.

V. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA

11. artikulua. *Tasak.*

Premia edo larrialdi egoeretarako udal harrera-etxebizitza erabiltzeagatik hilero ordaindu beharreko tasak ondokoak izango dira Legazpin erroldatutako bizilagunentzat:

CAPÍTULO IV

SUSPENSIÓN Y EXTINCIÓN DEL SERVICIO

Artículo 9. *Extinción del acogimiento.*

El servicio se extinguirá por los siguientes motivos:

- Finalización del tiempo previsto para la acogida.
- Renuncia de la(s) persona(s) acogida(s), Ayuntamiento o Institución Pública.

– Fallecimiento.

– Desaparición de la causa de necesidad que generó el acogimiento.

– Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del acogimiento.

– Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al acogimiento.

– No aportar la documentación que pudiera ser requerida para el seguimiento del acogimiento.

– Por agresión física o psicológica a otras persona(s) acogida(s).

– Por incumplimiento de las obligaciones de la(s) persona(s) acogida(s) previstas en este Reglamento.

– Por ausentarse sin justificación.

– Por no permitir el acceso al personal de los Servicios Sociales de Legazpi u otras personas autorizadas por estos.

– Por incumplimiento de las normas de funcionamiento interno.

– Por incumplimiento de las acciones a realizar en el marco del Plan de Intervención.

Tras la instrucción del expediente, y a propuesta de los Servicios Sociales Municipales, se podrá determinar la extinción de la prestación del acogimiento antes de la fecha prevista para ello mediante la oportuna resolución de Alcaldía y previa audiencia de la persona interesada por los Servicios Sociales Municipales.

Artículo 10. *Desahucio administrativo.*

En el caso de que, por alguno de los motivos contemplados en este Reglamento o por finalización del plazo concedido, las personas que deban abandonar el piso de acogida se negaran a hacerlo, podrán ser obligadas mediante desahucio administrativo siguiendo los trámites procedimentales previstos en los artículos 120 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales o normativa que lo sustituya.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN ECONÓMICO

Artículo 11. *Tasas.*

La tasa mensual por alojamiento en el piso de acogida de urgencia/emergencia de carácter municipal, para persona(s) empadronada(s) en Legazpi, será la siguiente:

Okupazioa	Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak				
	15.000 € baino gutxiago	15.001 € eta 21.000 € artean	21.001 € eta 25.000 € artean	25.001 € eta 35.000 € artean	35.001 € baino gehiago
Logela bat	150	200	250	300	350
Bi logela	180	240	300	360	420
Harrera-etxe osoa	220	290	380	460	520

Ocupación	Ingresos de la unidad de convivencial				
	Menor de 15.000 €	De 15.001 a 21.000 €	De 21.001 a 25.000 €	De 25.001 a 35.000 €	Mayor de 35.001 €
Un dormitorio	150	200	250	300	350
Dos Dormitorios	180	240	300	360	420
Piso acogida completo	220	290	380	460	52

Premia edo larrialdi egoeretarako udal harrera-etxebizitza erabiltzeagatik hileror ordaindu beharreko tasak ondokoak izango dira beste udalerrietako bizilagunentzat:

- Logela bakarra: 600 € hilean.
- Bi logela: 700 € hilean.

12. artikulua. Legazpin erroldatutako erabiltzaileek hileko tasa ordaintzeko baldintzak.

Legazpin gutxienez 6 hilabetez erroldatuta daudenen hiru ordainketa egoera izango dituzte:

1. Indarrean dagoen tasaren % 100 ordaintzea.
 2. Indarrean dagoen tasaren % 50 ordaintzea.
 3. Indarrean dagoen tasaren ordainketa salbuetsita izatea.
- 12.1. Hileko tasaren % 100 ordaintzea.

Harreran hartutakoek indarrean dagoen tasaren % 100 ordainduko dute honako egoeretan:

– Harreran hartutako pertsonen Diru-sarrerak bermatzeko errentarako indarrean dagoen zenbatekoaren % 150 baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenean, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate batentzat.

– Harreran hartutako pertsonen harrera eragin duen ezberhar edo egoerak sortutako gastuak estaltzen dituen seguruaren bat kontratatuta dutenean, baldin eta ordezko ostaturia aseguratutako kontzeptu gisa sar badaiteke.

– Harrera-etxebizitzan egon bitartean, erabiltzaileak ostaturia gastuak estaltzea xede duen laguntza publiko edo pribatua jasotzen duenean. Ondorio horietarako ez dira aintzat hartuko udalak berak ematen dituen laguntzak.

12.2. Hileko tasaren % 50 ordaintzea.

Harreran hartutakoek indarrean dagoen tasaren % 50 ordainduko dute honako egoeretan:

– Harreran hartutako pertsonen Diru-sarrerak bermatzeko errentarako indarrean dagoen zenbatekoaren % 100 baino gehiagoko eta % 150 edo gutxiagoko diru-sarrerak dituztenean, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate batentzat.

12.3. Hileko tasaren % 50 ordaintzea.

Harreran hartutakoek ez dute tasarik ordainduko eskaera egitean Diru-sarrerak bermatzeko errentaren pareko diru-sarrerak edo txikiagoak badituzte, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate batentzat.

13. artikulua. Zerbitzua erabiltzeak eragindako gastuak.

Udalaren kontura joango dira ondorengo gastuak: bizilagunen komunitatea, argindarra, gasa, ura, higiezinazitatearekin edo erabiltzearekin zerikusia duten edozein motatako tasa edo zergak, zaborra biltzeko tasa barne, eta konponketak egin behar diren ondorioz sortutako gastuak, etxebizitzan hartutako pertsonen egotzitako arrazoien ondorioz egin beharreko gastuak izan ezik.

AZKEN XEDAPENA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasu guztietan, edo bertan aurreikusten ez diren kasu berezi guztietan, Udal Gizarte Zerbitzuek erabateko ahalmena izango dute kasu bakoitzean egokitzatzen dituzten neurriak proposatzeko.

La tasa mensual por alojamiento en el piso de acogida de urgencia/emergencia de carácter municipal, para personas de otros municipios, será la siguiente:

- Ocupación de un dormitorio: 600 €/mensuales.
- Ocupación de dos dormitorios: 700 €/mensuales.

Artículo 12. Condiciones de abono de la tasa mensual para personas empadronadas en Legazpi.

Para las personas empadronadas en Legazpi con una antigüedad mínima de 6 meses existirán tres situaciones de abono:

1. Abono del 100 % de la tasa en vigor.
 2. Abono del 50 % de la tasa en vigor.
 3. Exención de abono de la tasa en vigor.
- 12.1. Abono del 10 % de la tasa mensual.

Las persona(s) acogida(s) pagarán el 100 % de la tasa en vigor en las siguientes situaciones:

– Si la(s) persona(s) acogida(s) tienen ingresos superiores al 150 % de la cuantía vigente para la Renta de Garantía de Ingresos para una unidad convivencial del mismo número de miembros.

– Si la(s) persona(s) acogida(s) tiene contratado algún seguro que cubre los gastos derivados del siniestro o circunstancia que motiva el acogimiento, siempre y cuando el alojamiento alternativo pueda incluirse como concepto asegurado.

– Si durante el ingreso, la(s) persona(s) acogida(s) está recibiendo alguna ayuda, pública o privada, cuyo objeto sea cubrir los gastos de alojamiento. No se consideraran a estos efectos las ayudas que se conceden desde el propio Ayuntamiento.

12.2. Abono del 50 % de la tasa mensual.

La(s) persona(s) acogida(s) abonarán el 50 % de esta cantidad en las siguientes situaciones:

– Si la(s) persona(s) acogida(s) tienen ingresos cuya cuantía se encuentra comprendida entre el 100 % y el 150 % de la Renta de Garantía de Ingresos para una unidad convivencial del mismo número de miembros.

12.3. Exención del abono de la tasa en vigor.

La(s) persona(s) acogida(s) no pagaran tasa alguna si, en el momento de hacer la solicitud, tiene(n) ingresos inferiores o igual a la de la Renta de Garantía de Ingresos vigente para una unidad convivencial del mismo número de miembros.

Artículo 13. Gastos derivados del uso del servicio.

Serán a cargo del Ayuntamiento los gastos de comunidad, electricidad, gas, agua, las tasas o impuestos de cualquier tipo relacionados con la tenencia o uso de inmueble, incluida la tasa de recogida de basuras, así como los gastos generados por arreglos, excepto que estos estén motivados por razones imputables a las personas acogidas.

DISPOSICIÓN FINAL

En todos aquellos supuestos no recogidos en el presente Reglamento o todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse no contemplados en el mismo, los Servicios Sociales del Ayuntamiento tendrán plena capacidad para proponer medidas que considere convenientes en cada caso.